



## I. ATALA

### BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA

#### Foru Enpresak eta Foru Erakundeak

#### Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea (GUFÉ)

#### 2022ko Enplegu Publikoaren Eskaintzari dagozkion Goi-Mailako Teknikarien kategoriako hautaprobek deialdia onesteari buruzkoa, Erabakia.

Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen Gobernu Batzordeak, 2025eko abenduaren 3an eginiko ohiko bileran (4/25 akta), besteak beste, honako erabaki hau onetsi zuen:

«*Lehenengoa:* Gobernu Batzordearen 2022ko abenduaren 19ko erabakiaren bidez onetsitako Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen enplegu publikoaren eskaintzarekin bat etorritik, hautaprobek deialdia egitea, eranskinean zerrendatutako Goi-Mailako Teknikariaren plaza betetzeko.

*Bigarrena:* Deialdi hori aratuko duten oinarri orokorrak (Oinarri orokorrak, eskabide-orriak eta erantzukizunpeko adierazpena ez dira erantsi. Errepikatutzat jotzen dira, 2022ko EPEari dagokion alde aurreko iragarkian argitaratutakoen berdina direlako (ekonomialari-kategoria)) eta espezifikoa onestea. Jasota gera daitezkeen, erabaki honi erantsi zaizkio.

*Hirugarrena:* Oinarriak argitara daitezela agintzea: oso-osorik, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, eta laburpena, berriz, Estatuko Aldizkari Ofizialean eta GUFÉko iragarki-oholean eta web-orrian.

*Laugarrena:* GUFÉko gerente jaunari ahalmena ematea deialdi hau izapidetzeko beharrezkoak diren ebazpenak har ditzan.»

Bilbon, 2025eko abenduaren 5ean.—GUFÉ-ren gerentea, David Latxaga Ugartemendia

**OINARRI BEREZIAK  
GOI-MAILAKO TEKNIKARIA****1. Deialdian eskainitako plazak**

Deialdia egiten da goi-mailko teknikari plaza (1) betetzeko (A taldea, A1 titulazio-az-pitaldea) oposizio-lehiaketa sistemaren bidez, honela banaturik:

- Txanda irekia: plaza bat (1), derrigorrezko C1C1 hizkuntza-eskakizuna duena.

**2. Titulazioa eta jatorriko plaza**

Lizentziatura edo gradua

**3. Hautaketa-prozedura**

Izangaia aukeratzeko prozedura oposizio-lehiaketa izango da.

**3.1. Oposizio fasea**

Oposizio-faseak hiru (3) ariketa izango ditu, nahitaezkoak eta baztertzailak.

**3.1.1. Lehenengo ariketa**

Ariketa teorikoa izango da, eta, bi ordu eta hogeitun minutuan (2:20), ehun (100) galderako test bat egin beharko da, gehi erreserbako hamar (10) galdera. Galderak II. eranskineko gaiet buruzkoak izango dira, eta bakoitzak aukerako lau erantzun izango ditu, baina bat baino ez da izango zuzena. Erantzun zuzenak puntu bat (1) balioko du, eta ez da punturik kenduko erantzun okerrengatik, zuriz utzitakoengatik edo erantzun bi markezegatik.

**3.1.2. Bigarren ariketa**

Ariketa praktikoa izango da; kasu edo batzuk ebatzi beharko dira, idatziz. Kasuok epaimahaiak proposatuko ditu eta II. eranskinean dagoen gaitegiko II. zatiko gaiet buruzkoak izango dira. Ariketa egiteko, lau (4) ordu egongo dira, gehienez. Ariketa modu anonimoan zuzenduko da.

**3.1.3. Hirugarren ariketa**

Euskara-proba: nahitaezkoa eta baztertzaila izango da; betiere, gorago adierazitako mailako euskararen ezagutza frogatu eta egiaztatu beharko da.

GUFEn edo Bizkaiko Foru Aldundian hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta dutenek ez dute berriro halakorik egiaztatu behar parte hartzen ari diren hautaketa-prozesuan, ez eta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan eskakizuna egiaztatutik ageri denean ere. Azken kasu horretan, parte-hartzaileak berariazko baimena emango dio GUFEn erregistro horretan egiaztapena egin dezan.

Hala eta guztiz ere, erregistro horretan ez dagoen baina 2010eko azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuarekin bat baliozkotuta dagoen euskararen titulu edo egiaztagiri bat dutenek, euskarako idatzizko ariketa egin baino lehen aurkeztu beharko dute titulu edo egiaztagiri hori. Dekretu horren bitartez, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzen dira.

Ikasketen ziurtagiria aurkeztu beharko dute C1C1 hizkuntza-eskakizuna 47/2012 Dekretuaren arabera egiaztatu nahi dutenek. Dekretu hori euskaraz egindako ikasketak ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatetik salbuesteko da.

**3.2. Lehiaketa**

Lehiaketan, oposizioa gaintu duten izangaiek aurkeztu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta balioztatuko dira. Horretarako, izangaia bakoitzari merezimenduen baremoaren arabera dagozkion puntuak emango zaizkio.

**4. Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa**4.1. *Lehiaketa-fasea*

Lehiaketa-fasearen kalifikazioa lortzeko, merezimenduen baremoaren —I. eranskin— arabera emandako puntuak batuko dira.

4.2. *Oposizio-fasea*

- a) Lehenengo eta bigarren ariketei zero (0) eta hamar (10) puntu bitarteko kalifikazioa emango zaie, eta haietariko bakoitzean bost (5) puntu lortu ez dituzten izangaiak berez geratuko dira baztertuta.

Izangaiak gorde egingo dute hautaketa-prozesu honen lehenengo ariketan —teorikoa— lortutako kalifikazioa hurrengo deialdirako, oinarrietan hala ezartzen bada, eta, betiere, bi deialdietan txanda berean parte hartzen badute, hau da, txanda irekian edo barne-sustapenean.

- b) Hirugarren ariketan, «gai» edo «ez gai» izango da kalifikazioa.

4.3. *Amaiera*

Izangaien azken kalifikazioa hautaketa-prozesu osoan lortutako puntu guztien batura izango da.

**5. Lan-poltsa**

Bosgarren oinarrian ezarritakoaren arabera, lan-poltsa bat eratuko da gutxienez hautaketa-prozesuko lehen ariketa gainditu duten pertsonekin. Lan-poltsa hori aldi baterako lanerako poltsei aplikatu beharreko irizpideak arautzen dituen unean uneko indarreko akordioan xedatutakoaren arabera osatu eta kudeatuko da.

**I. ERANSKINA****MEREZIMENDUEN BAREMOA**

1. Edozein administrazio publikotan Goi-mailako teknikari kategorian (A titulazio-taldea, A-1 azpitaldea) egindako zerbitzuengatik: 0,0999 puntu hileko edo zatiki bakoitzeko; gehienez, 6 puntu.

Ondorio horietarako, administrazio publikotzat joko dira arau hauetan jasotako en-teak: urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako En-plegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 2.1 eta 2.3 artikuluetan eta 4. artikulua a), b) eta c) letretan, eta Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 3.2 eta 3.4 artikuluetan. Orobat zenbatuko dira zu-zenbide pribatuko erakunde publikoetan egindako zerbitzuak, baina inola ere ez izaera publikoko beste erakunde batzuetan egindakoak, baldin eta enpresa, merkataritza-so-zietate edo elkarte nahiz korporazio publikoen forma juridikoa badute.

Emandako zerbitzuak hilabete balaratuko dira. Horretarako, dagozkien aldi guztiak egunez egun batuko dira, emaitza zati hogeita hamar eginda, eta ateratzen den zatia hilabete oso gisa zenbatuko da.

Nolanahi ere, zerbitzua lanaldi partzialean edo murriztuan ematen denean ere, lanal-di osotzat hartuko da.

Era berean, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen 2023ko martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 21.1.c) artikulua betetzeko, lanbi-de-esperientzia baloratzeko, kontuan hartuko dira honako hauek ere: lehenik, zenbat denbora egon den izangaia eszedentzia-egoeran, senideak zaintzeagatik edo genero-in-darkeriagatik; bigarrenik, zenbat denbora eman duen izangaia amatasuna eta aitatasu-na babesteko edo bizitza pertsonala, familia eta lana erantzukidetasunez kontziliatzeko lanaldi-murrizketetan edo baimenetan; eta, hirugarrenik, emakumezko enplegatu publi-koek zenbat denbora eman duten genero-indarkeriagatik baimenak baliatzen.

2. Administrazio publikoetan, administrazio publikoko eskoletan (IVAP, HAIN, HAEI edo beste administrazio-eskola batzuetan), nortasun juridiko publikoa duten zentro ofizia-letan eta unibertsitate publiko zein pribatuetan gaitegiarekin harreman zuzena duten pres-takuntza-ikastaroetan emandako nahiz jasotako ordu-kopuruagatik, 0,038 puntu emanda-ko ordu bakoitzeko eta 0,019 puntu hartutako ordu bakoitzeko; gehienez, 3 puntu.

Guztira: 9 puntu.

**II. ERANSKINA****I. ZATIA****ZATI OROKORRA**

1. Espainiako 1978ko Konstituzioa: Bigarren kapitulua: eskubideak eta askatasunak. 1. atala: Oinarrizko eskubideak eta askatasun publikoak. 2. atala: Herritarren eskubideak eta eginbeharrak.

2. Euskal Herriaren Autonomia Estatutua. I. titulua: Euskal Herriaren eskumenak. II. titulua: Euskal Herriaren aginteak. I. kapitulua: Eusko Legebiltzarra. II. kapitulua: Jaurlaritza eta Lehendakaria.

3. 27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Autonomia-Elkarte Osorako Erakundearen eta bertako Kondaira-Lurraldeetako Foruzko Ihardutze-Erakundearen arteko Harremanen buruzkoa. I. titulua: Autonomia-elkarte osorako erakundearen eta bertako foruzko ihardutze-erakundearen agintepideak.

4. 3/1987 Foru Araua, otsailaren 13koa, Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduaren buruzkoa. II. titulua: Bizkaiko Gobernu eta Administrazioez. I. kapitulua: Foru Aldundiaz. III. titulua: Batzar Nagusien eta Foru Aldundiaren arteko harremanez.

5. 4/2001 Foru Araua, maiatzaren 30ekoa, Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen Estatutuak aldarazteari buruzkoa. 1. artikulua: Izaera, sailkapena eta araubide juridikoa. 2. artikulua: Helburuak eta eginkizunak. 3. artikulua: Beharrezko egitura organikoa. 4. artikulua: Gobernu Batza. 5. artikulua: Gobernu Batzarraren eratzikipenak.

6. Administrazio Zuzenbidearen iturriak. Legea: kontzeptua eta motak. Lege-indarra duten arau-xedapenak. Erregelamendua: Kontzeptua, izaera eta motak. Erregelamenduen egiteko ahalaren titulartasuna. Foru-erakundeek emandako arau-xedapenak.

7. Administrazio-prozedura erkidea. Faseak: hasiera, antolamendua, instrukzioa. (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena: IV. titulua; II., III. eta IV. kapituluak).

8. Administrazio-prozedura erkidea. Faseak: amaiera (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena: IV. titulua; V. kapitulua).

9. Administrazio-prozedurei buruzko xedapen orokorrak eta prozedura bakoitzaren arau erregulatuak. Prozedurako interesdun motak. Administrazioaren eskubideak. (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena: I. titulua eta 13., 14. eta 15. artikulua).

10. Administrazio-antolaketa. Administrazio-antolaketaren printzipioak. Antolaketa ahala. Administrazio-organoak. Kontzeptua eta motak. Kide anitzeko organoei buruzko azterketa berezia. (40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena. Atariko titulua: I. kapitulua; II. kapitulua: 1. atala, 2. atala, 3. atala –1. azpiatala– eta 4. atala).

11. Administrazioaren zerbitzura dauden lan-kontratudun langileen araubidea: lan-kontratu motak (2/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 23koa, Langileen Estatutuaren Legearen Testu Bategina onartzen duena. I. titulua, I. kapitulua, 4. atala: Lan-kontratu motak. 11. eta 12. artikulua aldatu egin ziren abenduan 32/2021 Errege Lege Dekretuan. Lan-erreformarako, enpleguaren egonkortasuna bermatzeko eta lan-merkatua eraldatzeko premiazko neurriei buruzkoa da).

12. 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoarena. XI. titulua: Euskal enplegatu publikoen eskubideak, eginbeharrak, jokabide-kodea, bateraezintasunak eta erantzukizunak.

13. 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa. I. titulua: Xedapen orokorrak. II. titulua: Prestazioak eta zerbitzuak, funtzioen eta lurraldearen antolamendua, eta plangintza Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari.



14. 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa III. titulua: Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren eskumen, antolamendu, kontsulta eta partaidetzako araubidea. V. titulua: Ekimen pribatuaren esku-hartzea.
15. 3/2022 Legea, maiatzaren 12koa, Euskal Sektore Publikoarena. I. eta II. tituluak.
16. 64/2004 Dekretua, apirilaren 6koa, zeinaren bidez onartu baita Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta bete-beharren gutuna, eta iradokizunen eta kexen araubidea.
17. 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena. Atariko titulua. I. titulua: eskumenak, eginkizunak, antolaketa eta finantzaketa.
18. 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena. II. titulua: Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioen eta aginteen jardueran genero ikuspegia xtertatzeko neurriak.
19. 4/2018 Legea, ekainaren 20koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa. I. titulua: eskumenak, eginkizunak, antolaketa eta finantzaketa.
20. 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa. Atariko titulua. I. titulua: Sentsibilizazio-, prebentzio- eta detekzio-neurriak.
21. 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa. I., II. eta III. tituluak.
22. 16/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzarena. I. eta II. kapituluak.
23. 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Lan-arriskuen Prebentzioari buruzkoa. I. kapitulua: Xedea, aplikazio-esparrua eta definizioak. Lanean sexu-jazarpenari, sexuan oinarritutako jazarpenari eta sexu-askatasunaren aurkako beste jokabide batzuei aurre egiteko prebentzio- eta jarduketa-protokoloa.
24. 19/2024 Dekretua, otsailaren 22koa, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzea. I. kapitulua: Xedapen Orokorrak. III. kapitulua: Lehenengo atala. Hizkuntza-eskakizunak eta derrigortasun-data.
25. GUFEn egitura organikoaren araudia. Lehenengo titulua: Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea. I. kapitulua: Eskumen-eremua. II. kapitulua: Egitura organikoa. Bigarren titulua: Egitura, eskumenak eta erantzukizunak. I. kapitulua: Zuzendaritza- eta aginte-egitura.
26. 1/2016 Foru Araua, otsailaren 17koa, Bizkaiko Gardentasunari buruzkoa. 2. artikulua: Aplikazio-eremua. 5. artikulua: Publikotasun aktiboa: kontzeptua eta dimentsioak. 13. artikulua: Publikotasun aktiboaren arloko eskakizunak ez betetzearen ondorioak. 18. artikulua: Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea. 21. artikulua: Informazioa eskuratzeko eskubidea baliatzeko mugak. 22. artikulua: Ez onartzeko arrazoiak. Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordea (27., 28. eta 29. artikulua). 34. artikulua: Gardentasunaren bermeak.
27. BFAko eta haren erakunde autonomoetako lan-kontratudun langileen hitzarmen kolektiboa. Atariko titulua.

## II. ZATIA

### ZATI ESPEZIFIKOA

28. Pertsona ardatz duen arreta-eredua: Oinarriak. Erreferentziako profesionala. Arreta pertsonalizatuko plana.
29. Asistentziaren etika. Jardunbie egokiak arretaren arloan.



30. Gomendio etikoen gida: Informazioa eta baimena emateko prozesua Gizarte Zerbitzuetan.
31. Arreta soziosanitarioa. Aurrekariak. Arau-esparrua. Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseilua.
32. Bizkaiko Plan Operatibo Soziosanitarioa. Arreta eta koordinazio soziosanitarioa Bizkaian. Helburuak eta eragina. Bizkaiko Lurralde Historikoko Lurralde Batzorde Soziosanitarioa.
33. 39/2006 Legea, abenduaren 14koa, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa. Atariko titulua. Xedapen orokorrak. I. titulua. III. kapitulua: Mendetasuna eta horren balorazioa. IV. kapitulua: Eskubidea aitortzea.
34. 39/2006 Legea, abenduaren 14koa, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa. II. titulua: Autonomiaren aldeko eta mendetasunari arreta eskaintzeko sistemaren kalitatea eta eraginkortasuna.
35. 126/2019 Dekretua, uztailaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko adinekoentzako egoitza-zentroei buruzkoa. I. kapitulua: Xedapen orokorrak. II. kapitulua: Eskakizun materialak.
36. 126/2019 Dekretua, uztailaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko adinekoentzako egoitza-zentroei buruzkoa. III. kapitulua: Eskakizun funtzionalak.
37. 126/2019 Dekretua, uztailaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko adinekoentzako egoitza-zentroei buruzkoa. IV. kapitulua: Langile-eskakizunak.
38. Bizkaiko Foru Aldundiaren 119/2021 Foru Dekretua, abuztuaren 24koa, bizikidetzako unitateen antolaketa arautzen duena mendekotasuna duten adinekoentzako egoitzen foru zerbitzua ematean. I. kapitulua: Xedapen orokorrak.
39. Bizkaiko Foru Aldundiaren 119/2021 Foru Dekretua, abuztuaren 24koa, bizikidetzako unitateen antolaketa arautzen duena mendekotasuna duten adinekoentzako egoitzen foru zerbitzua ematean. II. kapitulua: Bizikidetzako unitateen baldintzak.
40. Bizkaiko Foru Aldundiaren 138/2006 Foru Dekretua, abuztuaren 23koa, besteren laguntza behar duten adinekoentzako egoitzen foru sareko zentrozen barne erregimeneko araudiaren eredia onesten duena.
41. Bizkaiko Foru Aldundiaren 17/2014 Foru Dekretua, otsailaren 25ekoa; honen bidez, mendetasuna duten pertsonentzako egoitzen foru zerbitzu publikoan sartzeko araubidea eta zerbitzu hori egonaldi iraunkorrean emateko baldintzak arautzen dira. I. kapitulua: Xedapen orokorrak. II. kapitulua: Erabiltzaileak. 5. eta 6. artikulua. III. kapitulua: Mendetasuna duten pertsonentzako egoitzen foru zerbitzu publikoan egonaldi iraunkorrean sartzeko administrazio-prozedura. 9. eta 10. artikulua. 1. eta 2. atalak.
42. Bizkaiko Foru Aldundiaren 17/2014 Foru Dekretua, otsailaren 25ekoa; honen bidez, mendetasuna duten pertsonentzako egoitzen foru zerbitzu publikoan sartzeko araubidea eta zerbitzu hori egonaldi iraunkorrean emateko baldintzak arautzen dira. IV. kapitulua: Plazen kudeaketa. V. kapitulua: Alta ematea egoitzen foru zerbitzu publikoan. VI. kapitulua: Erabiltzaileen eskubide eta betebeharrak.
43. Bizkaiko Foru Aldundiaren 117/2022 Foru Dekretua, urriaren 18koa, Bizkaiko Lurralde Historikoan Foru Aldundiaren eskumeneko egoitza-baliabide soziosanitarioetarako baloraziorako eta sarbiderako prozedura arautzen duena.
44. 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa. Xedapen orokorrak. Zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak lortzeko baldintzak eta irizpideak (EHAA, 266. zk., 2015eko urriaren 29koa).
45. GUFeko Erabiltzailearentzako Arreta Unitatea (GUFeren Gobernu Batzordearen 2005eko apirilaren 28ko erabakia).
46. 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. Atariko titulua: Xedapen orokorrak. III. titulua: Administrazio-egintzak.



47. 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena... II. titulua: Administrazio publikoen jarduera.
48. 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. IV. titulua: Administrazio-prozedura erkideari buruzko xedapenak, VI. eta VII. kapituluak.
49. 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. V. titulua: Egintzak administrazio-bidetik berrikustea.
50. 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena. Atariko tituluaren III. eta IV. kapituluak: Xedapen orokorrak, sektore publikoaren jarduketeta-printzipioak eta funtzionamendua. II. tituluaren (Sektore publiko instituzionalaren antolaketa eta funtzionamendua) I. kapitulua: Sektore publiko instituzionala.
51. 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena. Atariko tituluaren (Xedapen orokorrak, sektore publikoaren jarduketeta-printzipioak eta funtzionamendua) V. kapitulua (Sektore publikoaren funtzionamendu elektronikoa) eta VI. kapitulua (Hitzarmenak). III. titulua: Administrazioen arteko harremanak (145. artikulutik 154. artikulura izan ezik, bi artikulua horiek barne).
52. 29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena. I. titulua: Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzio-ordena. II. titulua: Alderdiak. III. titulua: Administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren objektua.
53. 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena: I. titulua - Xedapen orokorrak. Eta 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa: I. titulua - Legearen xedea eta printzipioak; II. titulua - Udalerria eta gainerako euskal toki erakundeak, eta VIII. titulua - Tokiko zerbitzu publikoen kudeaketa.
54. 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena. Atariko titulua. II. kapitulua: Sektore publikoko kontratuak.
55. 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena. Lehenengo Liburua. II. titulua: Kontratuko alderdiak. I. eta II. kapituluak.
56. 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena. Bigarren Liburua. II. titulua, I. kapitulua: Administrazio publikoen kontratazioari buruzko jarduketak. 1. atala eta 2. atala.
57. 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena. Bigarren Liburua. II. titulua, I. kapitulua: Administrazio publikoen kontratazioari buruzko jarduketak. 3. atala.
58. Erregelamendua: kontzeptua eta motak; erregelamendua prestatzeko prozedura; erregelamenduak egiteko ahalaren mugak eta legez kanpoko erregelamenduen aurkako defentsa. 39/2015 Legearen VI. titulua: Legegintza-ekimena eta erregelamenduak eta bestelako xedapenak emateko ahala.
59. Administrazio Publikoaren posizio juridikoa. Legezkotasun-printzipioa eta haren agerpenak. Administrazio-ahalak: ahal diskrezionala eta erregelatua. Diskrezionalitatearen kontrola; bereziki, agintea desbideratzearena.
60. 33/2003 Legea, azaroaren 3koa, Administrazio Publikoen Ondareari buruzkoa. Atariko titulutik (Xedapen orokorrak), I. kapitulua - Xedea eta aplikazio-eremua eta II. kapitulua - Administrazio publikoaren ondarea. I. titulua - Ondasunak eta eskubideak eskuratzeko. II. titulua - Ondarearen babesa eta defentsa.
61. 2016/679 Erregelamendua (EB), 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, eta 95/46/CE Zuzentaraua indargabetzen duena. I. kapitulua (1-4 artikulua), II. artikulua (5-10 artikulua), III. kapitulua (12-18 artikulua eta 20-22 artikulua) eta IV. kapitulua (24-26 artikulua eta 28. artikulua).
62. 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko. IX. titulua: Zehapen-araubidea (70-71 artikulua eta



77. artikulua). X. titulua: Eskubide digitalen bermea. Eskubideen aipamen orokorra eta 1., 2. eta 8. xedapen gehigarriak.

63. 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa. I. kapitulua: Aplikazio-eremua. II. kapitulua: Printzipio orokorrak. III. kapitulua: Aurrekontu-egonkortasuna eta finantza-iraunkortasuna. 5/2013 Foru Araua, ekainaren 12koa, Bizkaiko Toki-erakundeen aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzkoa.

64. Bizkaiko Foru Aldundiaren 106/2020 Foru Dekretua, abenduaren 1ekoa, zeinaren bidez erregulatzen baita nola gauzatu datuen irekiera Bizkaiko Foru Aldundiaren Open Data Bizkaia datu irekien atarian: 1. artikulutik 7. artikulura. 37/2007 Legea, azaroaren 16koa, sektore publikoko informazioa berrerabiltzeari buruzkoa: I. titulua - Xedapen orokorrak, eta II. titulua - Berrerabiltzearen araubide juridikoa.

65. Bizkaiko Foru Aldundiaren 62/2015 Foru Dekretua, maiatzaren 5ekoa, Administrazio Elektronikoari buruzkoa, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 77/2012 Foru Dekretua, apirilaren 17koa, zeinaren bidez sortzen baita Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa eta arautzen baitira Bizkaiko Foru Administrazioaren egoitza elektronikoa.

66. Bizkaiko Foru Aldundiaren 6/2020 Foru Dekretua, otsailaren 4koa, Bizkaiko Foru Aldundiaren dokumentuen erregistro elektronikoa orokorra arautzen duena. Bizkaiko Foru Aldundiaren 20/2021 Foru Dekretua, martxoaren 30ekoa, erregistro-gaietan laguntzeko bulegoak arautzen dituena.

67. Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru-diputatuaren 4841/2016 Foru Agindua, ekainaren 6koa, jakinarazpenak eta komunikazioak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa agertzeko sistemaren bidez egiteari buruzkoa.

68. 4/2010 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, Administrazio Elektronikoaren esparruan Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionala arautzen duena, eta 82/2020 Ebazpena, urriaren 21ekoa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarreko Harremanetarako zuzendariarena, zeinaren bidez xedatzen baita administrazio elektronikoko oinarriko irtenbideak elkarri emateko Bizkaiko Foru Aldundiarekin sinatutako lankidetzaren hitzarmena agitaratzea. (EHAA, 214. zk., 2020ko urriaren 29koa).

69. 6/2020 Legea, azaroaren 11koa, Konfiantzako zerbitzu elektronikoen zenbait alderdi arautzekoa: I. titulua - Xedapen orokorrak; II. titulua - Ziurtagiri elektronikoa; III. titulua - Konfiantzako zerbitzu elektronikoen emaileen betebeharrak eta erantzukizuna, lehen eta bigarren xedapen gehigarriak. Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru-diputatuaren honako foru-agindu hauek: 4840/2016 Foru Agindua, ekainaren 6koa; 8453/2016 Foru Agindua, urriaren 19koa, eta 9310/2016 Foru Agindua, azaroaren 15ekoa. Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Saileko foru-diputatuaren 4480/2022 Foru Agindua, maiatzaren 16koa, zeinaren bidez zigilu elektronikoa eta egiaztapen-kode segurua (EKS) ezartzen baitira Bizkaiko Foru Aldundiaren administrazio-jardura automatizaturako sinadura elektronikoko sistema gisa.

70. BFAko eta haren erakunde autonomoetako lan-kontratudun langileen hitzarmen kolektiboa (I): Lehenengo titulua. I., II., III., IV. eta V. kapituluak.

71. BFAko eta haren erakunde autonomoetako lan-kontratudun langileen hitzarmen kolektiboa (II): Lehenengo titulua. VI. eta VII. kapituluak.

72. 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoarena. Atariko titulua. II. titulua: Euskal administrazio publikoen zerbitzuko langileak.

73. 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoarena. IV. titulua: Enplegu publikoaren egitura eta antolamendua. V. titulua: Enplegatutako publikoaren izaera lortzea eta galtzea.

74. 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoarena. VI. titulua: Euskal sektore publikoko langileen hautaketa eta prestakuntza. VII. titulua: Karrera profesionala.

75. 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoarena. VIII. titulua: Lanpostuak hornitzea eta mugigarritasuna. XII. titulua: Diziplina-araubidea.



76. 3/2022 Legea, maiatzaren 12koa, Euskal Sektore Publikoarena. I. eta II. tituluak.
77. 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena. I. titulua: Xedea eta aplikazio-eremua. II. titulua: Administrazio publikoetako langileak.
78. 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena. V. titulua: Jarduera profesionala antolatzea.
79. 2/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 23koa, Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena. I. titulua: Norbanakoaren lan-harremanak. I. kapitulua: Xedapen orokorrak. 1. atala: Eremua eta iturriak. 2. atala: Oinarrizko lan-eskubideak eta -betebeharrak. 3. atala: Lan-kontratuaren osagaiak eta eraginkortasuna.
80. 2/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 23koa, Langileen Estatutuaren Legearen Testu Bategina onartzen duena. I. titulua, II. kapitulua: Lan-kontratuaren edukia. 1. atala: Kontratuaren iraupena.
81. 2/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 23koa, Langileen Estatutuaren Legearen Testu Bategina onartzen duena. II. titulua: Langileek enpresan ordezkaritza kolektiboa izateko eta bilerak egiteko duten eskubidea. I. kapitulua: Ordezkaritza kolektiboa izateko eskubidea.
82. 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa. I. titulua: Jarduera publikoaren gardentasuna. III. kapitulua: informazio publikoa eskuratzeko eskubidea.
83. 53/1984 Legea, abenduaren 26koa, herri-administrazioetako langileen bateraezintasunei buruzkoa.
84. 8/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina onartzen duena. II. kapitulua: Gizarte Segurantzaren sistemaren aplikazio-eremua eta egitura. III. kapitulua: 1. atala. Sistemaren afiliatzea, eta sistema osatzen duten araubideetako altak, bajak eta datu-aldaketak. 2. atala. Gizarte Segurantzako kotizazioa eta baterako diru-bilketaren kontzeptuen araberako kotizazioa. V. kapitulua: Aldi baterako ezintasuna.
85. GUFEn Egitura Organikoaren Erregelamendua (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 214. zenbakia, 2021eko azaroaren 8koa). Bigarren titulua. III. kapitulua: Zerbitzu deszentralizatuak.
86. GUFEn Egitura Organikoaren Erregelamendua (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 214. zenbakia, 2021eko azaroaren 8koa). Hirugarren titulua: Zerbitzuen egitura eta misioa.
87. Giza baliabideen kudeaketa estrategikoa. Giza baliabideak kudeatzeko sistema.
88. GUFeko lan-poltsak kudeatzeko irizpideak.
89. Laneko segurtasun eta osasunerako baldintzak: prebentzio-neurriak. Ergonomia lanpostuan.
90. Talde-lana. Koordinazio multiprofesionala. Jardunbide egokiak.